

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2010eko abenduaren 23a. VIII. urtea. 2.145. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



ITERADILOS

→ **Argazkiak eta panpinak ikusgai.** Tolosako Aranburu jauregian *Mundu bat koloreta* eta *Bizia* erakusketak bisitatu daitezke. Lehen Angel Cuerdoren bidaietako argazkiak biltzen ditu eta bigarren goan Puri Etxaburuaren *reborn* panpinak ikusi daitezke. Bai argazkiak eta bai ta panpinak ere salgai daude. Cuerdok biltzen duen dirua, gainera, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin jasoko du abian duen proiektu baterako. **4**

Dena prest Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egiteko

Bihar iluntzean iritsiko dira urte bete eta gero Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri guztietara Eguberri harrera eginez **6-7**

Sasi-isunak jarri ditu Mugituk «AHT proiektua ordainezina» dela salatzeke

Tolosa, Anoeta, Villabona eta Zizurkilen jarri dituzte herritarrei AHTren «neurrigabeko gastu ekonomikoaren» berri eman asmoz **3**

Euskararen aldeko apustua egin dute Gipuzkoako Kutxak eta Euskadiko Kutxak

UEMArekin eta mankomunitateko kide diren 40 udalerrirekin bost urtetako iraupena duen hitzarmena sinatu dute **2**

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!

Blai

Jantziak eta Osagaiak

Neurriak 38tik 60ra

Tel.: 943 11 72 43
lurre 10 beheak • TOLOSA

SABIERRI

Revlon

Makillaje zerbitzua daukagu

Kale Nagusia, 17 • TOLOSA
Tel.: 943 67 11 28 • www.saberri.com

Bidaiazteko bi maleta zozketatzen ditugu



Deban sinatu zuten hitzarmena Udalak eta herriko eragileek UEMAn sartzeko eskaera egin dutelako. HITZA

Gipuzkoako Kutxak eta Euskadiko Kutxak euskara lehenetsiko dute

UEMArekin eta bertako hainbat udalerriekin sinatu dute hitzarmena; bost urtetako iraupena du akordioak

Erredakzioa

UEMAk eta UEMAko 40 udalek hitzarmena sinatu berri dute Gipuzkoako Kutxarekin eta Euskadiko Kutxarekin eta honen arabera, bi finantza erakundeek konpromisoa hartu dute UEMAko udalerrietan eskaintzen dituzten komunikazio guztiak euskaraz egiteko. 40 udal horietatik 15 Tolosaldean eta Leitzaldeen daude.

Hitzarmenean, konpromiso zehatzak daude, eta bost urteren buruan osorik betetzea aurreikusten dute.

Hitzarmenaren ekitaldia Deban egin zuten, herriko udalak UEMA-n sartzeko eskaera egin dutelako.

Udalarekin batera herriko elkarteek ere bere egingo dute eskaera.

Konpromiso zehatzak

Kutxa biek hartutako konpromiso nagusiak honako hauek dira: langile finko zein aldi baterakoak euskaldunak izatea eta behar bezala prestatuta egotea komunikazioak euskaraz ondo eskaintzeko, bezeroei lehen hitza euskaraz egitea, produktuak kontratatzen direnean eskaintza euskaraz egitea, txartelak euskaraz sortzea kontrakoa esan ezean, euskara

erabiltzeko sustapena era desberdinez egitea, publizitate, kartel eta esku orriak euskaraz egotea eta lehentasuna izatea, eta libreta eta kontuetako idazpenak euskaraz egotea, besteren artean.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko, urtero helburu zehatzak ezarriko dira eta bilakaera nola doan ikusteko, hizkuntza neurketak zehatza egingo da udal haue-tan.

Batzar Nagusia

Debako bilera urteko Batzar Nagusia egiteko ere baliatu zuten UEMAko ordezkariak. Bertan 2010eko balantzea egin zuten eta 2011rako egitasmoa eta aurrekontuak ere onartu zituzten.

Era berean, mankomunitateak bere hausnarketa prozesuaren berri eman zuen eta datorren urteko udaberrian topaketa batzuke egingo dituztela ere aurreratu zuten. Topaketen helburua UEMA-ren aldeko mezua zabaltzea izango da eta hizkuntza gutxituek bizirik irauteko zer-nolako ingurunea behar duten jorratuko dute nagusiki.

↓ Akordioa

■ **Finantza erakundeekin akordioa sinatu duten Tolosaldeko eta Leitzaldeko herriak:** Adu-na, Alegia, Altzo, Amezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Leiza eta Orexa. Aresok, Leitzak eta Leaburu-Txaramak, dena den, akordioa Euskadiko Kutxarekin sinatu dute, Gipuzkoako Kutxarekin loturarik ez dutelako.



Igandeko kontzertuaren irudia. HITZA

Amaitzear da Txintxarriren 50. urteurrena

Eguberrietako emanaldiekin amaituko dituzte urteurreneko ekitaldiak; kontzertu berezia izan zen igandean

Erredakzioa Alegia

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek urtero Eguberri inguru honetan egiten duten kontzertua eskaini zuten pasa den igandean Juan Bataiatzailea Deunaren elizan. Emanaldi desberdina egin zuten Tolosaldeko Eduardo Mokoroa musika eskolako bandarekin batera aritu baitziren. Urte osoa eman dute koruaren mende erdia ospatzen, eta Eguberrietan eskainiko dituzten emanaldiekin amaituko dituzte 50.urteurreneko ekitaldiak.

Deialdi «arrakastatsua»

Herriko bi abesbatzek egindako deialdia «arrakastatsua» izan zen oso. Zazpietarako eliza jendez lepo beteta zegoen, eta zenbaitetik zutik jarraitu behar izan zuten emanaldia. Bi abesbatzak Tolosaldeko Eduardo Mokoroa Musika Eskolako ikasleek lagunduta aritu ziren zenbait kantutan, Miguel Angel Moreno eta Garbiñe Orbe gozoren gidaritzapean.

Musika Bandakoek hasi zuten emanaldia eta ondoren, Txintxarri abesbatzakoak *Gabonak gabon* abestia kantatuz sartu ziren elizan, gizonak eta emakumeak nahasian, Mariage Rekondo herri-

tarrak pianoan lagunduta. Segidan, abesbatza eta musikariak batera aritu ziren. Hernaniko Musika Eskolatik etorritako kantariak laguntza izan zuten abeslariak. Xefe Balerdi koruko tenorrrak gozatu zituen entzuleen belarriak bakarlarik gisa aritu zenean. Bukatzeko, ingelesez kantatutako lau abesti eskaini zituzten Txintxarri Txikiak. Bandarekin batera aritu zen pianoa jotzen Rekondo herritarra. Txalo zaparrada handiak jaso zituzten behetik adi-adi egon ziren entzuleen alde-tik.

Xabier Lete gogoan

Alegian ere ezin ziren geratu Xabier Lete gogoratu gabe geratu eta honen abestirik ezagunenetakoa, koruak behin baino gehiagotan kantatu duena, kantatu zuten, *Xalbadorren heriotzean*.

Era berean, kontzertuaren amaiera aldera, eskerrak eman zizkieten abesbatzakoek 50. urteurrenean lagundu duten laguntzaile guztiei. Bazkideei, herriko Udalari eta parrokiari eta entzuleei. Baina eskertza kontrako norabidean ere iritsi zen: herriko Gure Etxea, Intxurre eta Txintxarri elkarteek Tomas Ugartemendia eskultoreak egindako oroigarri bat oparitu zieten abesbatzakoek. Horrez gain, otordutxo bat ere eman zieten kontzertuan parte hartutakoek Txintxarri elkarte-an. Ibon Azpilikueta Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak lehendakariak jaso zuen oroigarria.



Oroigarria ere jaso zuten abesbatzako kideek. HITZA

Irudia ◉ Tolosa**BELDUR BARIK! JAIALDIKO SARITUAK**

Tolosako Batxilergoko bigarren mailako ikasleek antolatu zuten Beldur Barik! jaialdia Leidorren. Jaialdian hainbat eduki izan ziren eta antolatzaileak oso pozik agertu dira ekimenarekin. Bestetik, Beldur Barik! jaialdian sarituak hauek dira: Naiara Delgado *Mujer Casa*-rengatik; Ander Orzaiz eta

Irati Agüero *Garraxil*-rengatik; Myriam Gomez, Cristina Gomez, Xabier Garaialde, Lamberto Perurena eta Igor Arabaolaza *Taupadak*-rengatik; eta Keiran taldea (Marta Olea, Nora Salvador, Aitor Iraola, Urki Kolinas, Israel Garcia, eta Jurgi Goñi) *Librea Izan* lanarengatik. HITZA

«AHT ordaintzeko sasi-isunak» banatu ditu Mugituk

Guztira Hego Euskal Herrian ehun mila jarri dituzte; eskualdean Tolosa, Anoeta, Villabona eta Zizurkilen

Erredakzioa

Mugitu AHT Gelditzeko desobediencia mugimenduak ekintza burutu zuen aurreko asteburuan, «AHT ordainezina» dela salatze-ko. Horretarako ehun mila sasi-isun jarri zituzten Hego Euskal Herrian beste hainbeste autoetan. Eskualdean, Tolosa, Anoeta, Villabona eta Zizurkilen egin zuten ekintza.

AHTk dakarren «neurrigabeko gastu ekonomikoa» salatu nahi zuen Mugituk ekintza horrekin. «Isunak faltuak dira, baina AHTa egiteko ordainarazten gaituztena egia da», azaldu dute.

Isunaren formatua erabili zuten «herritarrak AHTak zuzen-zuzenean eragiten diela konturatu daitezkeen». Zentzu horretan, «isunek poltsikoari egiten dioten mina eta duten kutsu inposatzailerak ezin argigarriagoa egin zaigu AHTaren benetako kutsua azalarazteko».

Gidari bat baino gehiago harrituta geldituko zen autoaren haitzakotan isuna ikusi zuenean. Bertan zehazten zenez, AHTk gutxienez 6.341 milioi euroko kostua izango du EAEn eta 3.000 milioi-tik gora Nafarroan. Horren arabera, AHTren eraikuntzak 4.790



Sasi-isunak ehun mila autoetan jarri zituzten Mugituko kideek. HITZA

euro inguru kostatuko du pertsona bakoitzeko. Isunak 95,80 eurokoak ziren, «biztanle bakoitzak ordainduko duenaren %2a». Mugituk salatu duenez, krisi ekonomikoarekin «egoera gehiago

okertzen da», Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak «ez baitute likidezirik AHTren gastua ordaintzeko eta zorpetze ahalmena agortzen ari dira».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Musika Bandak Gabonetako kontzertua emango du Trianguloan**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako Musika Bandak ohiko Gabonetako kontzertua emango du bihar, 12:30ean, Trianguloa plazan. Luis Mari Garciak zuzenduko du emanaldia eta bi zatitan bederatzi obra joko dituzte.

Besteak beste, Eguberri-erlotu-tako abestiak joko dituzte Musika Bandakoek. Lehen zatian lau obra emango dituzte: *Gora Kale-txiki* (Joxe Mari Oizartabal), *Trip-*

tico vasco (Rodrigo A. de Santiago), *Jeiki, jeiki* (Tomas Aragüesek moldatua) eta *Lepoan hartu ta segi aurrera* (Tomas Aragüesek moldatua).

Bigarren zatian beste bost pieza joko dituzte musikariek: *Olenzero* (Iñaki Urkizuk moldatua), *Seaskan* (Johannes Brahms), *White Christmas* (Irvin Berlin), *Hator, hator* (Tomas Aragüesek moldatua), eta *Olenzaro* (Eduardo Mokoroa).

Isidro Larrañaga eskolako ikasleen emanaldia Leidorren**Erredakzioa** Tolosa

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak antolatuta, bertako eskolako ikasleek kontzertua emango dute, gaur, Leidorren, 19:30ean. 30 urte daramatzate Eguberrietako emanaldia eginez. Hainbat musikaririk parte hartuko dute emanaldian: trikitilariak, piano-joleak,

akordeoi-joleak, gitarra-joleak, perkusio-joleak...

Taldeek ere parte hartuko dute, tartean gitarra-joleena tartean. Eta noski, emanaldian izango dira Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra eta gazteen orkestra ere. Pragan izan dira aurreko eta sari nagusia eskuratu zuen Akordeoi Orkestrak.

Donosti Ereski eta Ereskitxo abesbatzen saioa gaur, elizan**Erredakzioa** Aldaba

Donosti Ereski eta Ereskitxo abesbatzek, Migel Zeberio tolosarraren zuzendaritzapean, emanaldia egingo dute gaur, 17:30ean, Aldabako elizan.

Gabonetako eta euskal folklorearen kantak abestuko dituzte

Donostiako bi taldeek. Abesbatzak ez dira ezezagunak Aldaban, batez ere Ereskitxo, aurreko ekainean saioa egin baitzuen auzoan bertan.

Orain 40 urte sortu zen Donosti Ereski abesbatza eta ordudanik, besteak beste, hainbat lehiaketetan parte hartu du.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. Interesatuak deitu 687 40 52 33 telefono zenbakira.

■ **Ekonomia.** Lakuntza markako ekonomika, Clásica modelo. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuak, deitu 649 51 09 41 zenbakira.


■ **Plantetako enkofratua.** Karreerak, zertxak, puntalak, postetako txapak, taberoak

200x50 saltzen dira. Modu onean. 667 41 88 75.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurakin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 75 9 15.

Erakusketa



ANGEL CUERDOREN BIDAIAK IRUDIETAN DAUDE IKUSGAI

Munduko truko askotan izan da Angel Cuervo tolosarra. Bada, leku horietan bizitakoa argazkien bidez erakutsi nahi izan du, eta horregatik, *Mundu bat kolore* erakusketari jarri du Aranburu jauregia. Guztira 81 argazki daude, bakoitza bere gogotarekin. Erakustiaz gain, salgai ere badaude, ekimenaren beste helburua sahararrei laguntzea baita. Cuervo Laskorain ikastolaren jarritzen haren emanetan. Sahararen aldeko Merkato Txikia antolatuta ohi dutelako urtero, eta horrela erabaki zuten, argazkiekin jasotako dirua ere bertara bideratzea. Mende baldeko Saharako zonalde libreaan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ikastetxe bat eraikitzeko proiektua du, eta horretarako erabiliko dute, bai Merkato Txikian, bai eta argazkiekin bildutakoa. 50 euroan eskuratuta daterake bakoitza. Ur-tamilaen 9ra arte izango da erosteko aukera. »

Erakusketa



ESKUEKIN EGINIKO HAURRAK

Benetakoak dirudite, haurrek izan ohi dituzten ohiko kienak irudikatzen baitituzte. Puri Etxaburua tolosarrak bere reborn pampinak jarri ditu kusgai Aranburu jauregia. Bizia zenbun-pear, Urte eta erdi darama afizio honekin, eta Bartzelonan ere izana da pampinak egiten ikasten. Itza bera baina jarri, bestiak, betazalak, haurren pisu egokia lortu... » behetasun guztiak zaintzen ditu Espainiako lehenaketa batean ere parte hartu du, *¡N!goghaurrekin* (eskubian). Salgai ditu guztiak. 1100004005

Jokin Bildarratz
Tolosako alkatea

Sahararen errefuxituen kanpalekuetan izan berri da; «gurekin dituzten elementu komunak kontuan izanda» sahararrei babesa ematea «garantzitsua» dela dio.

«Egunerokoa da sahararren borroka»

Iligo Terradillos Gizekoa

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea Aljeriako Tinduf hirian odoan dauden saharar errefuxituen kanpalekuetan izan berri da. Bertan gogotsu asatu duten proiektua landu eta Tolosa analituta dagoen Bi-Lehlu herriarekin harreman sendotzea izan dira bidaiaren helburu nagusiak. Herri klasika, alai eta ereduagarriz dela naharmendu da. **Etan berri zara saharar kanpalekue-tan lauegun igarotzeki. Zein izanda bidalaren helburua?**

Laukote bat izan gara. Saharar kanpalekuetan gurea zentro bat eraikitzea da asmoa. Zentro honek elkartune moduan jokatzeko luke, eta garantzitsua izango da garbientzari nahiz helduentzari. Zentroarekin batera, pilotaleku bat ere egin nahi dugu. Uste dugu eskakidumuntzat hain elementu garantzitsua izan denak hain ere funtzio egokia bete ahaliko duela. **Zein faseetan dago proiektua?**

Horretaz garrantzitsu hitz egiteko, lehen ministroarekin eta kultur ministroarekin bildu gara. Aurrera doala ikita esan dezakegu. Hori bai, gure asmoa behin behineko proiektu bat izatea da. Izan ere, sahararrek egun zonalde hartan, errefuxituen kanpalekuetan, bizi dira, baina ez betirako. 35 urte igaro dituzte dagoeneko leku hartan, baina berriek ez dute handik mugitzea itxaropenik galtzen. Horregatik, diot aurrekoetan dugu proiektu behin-behineko dela. **Tolosa analituta dagoen herriko alkatearekin ere bildu zara.**

Bai, Bi-Lehlu herriko alkatearekin egoteko ahalera ere izan dut 1996. urtean sinatu zuen Tolosako Udalak herri horrekin anaitzeko hitzarmena, baina aplikatu gabe geratu zen, eta hori berriro mar-txan jarri nahi dugu. Horregatik, oraingo lehiatan hitzarmen hori berretsi dugu. Gainera, datorren urterko urtarrian bertako alka-tea Tolosara etorriko da. Tolosa-dei Sahararekin elkartasun eta Udalaren artean atertuko dugu hitzarmen horretan sinatuta da-guea nola gusatu. **Zaintzak dio dituzten behar handie-nak?**

Ur biltegiak dira, nagusiki, be-rrak eskatzen dutena. Biltegi asko daude han, eta hondatuta eta erodiduta daude. Ur bealako oinarriko elementu bat izan-nik, ur-horniketa egokiagoa izan-deraten nola lagundu dezakegun ari gara pentsatzen. Easteako, urtero-urtero, biltegi horiek be-rritzen jartzea izan daiteke auko-telako bat. **Akden astetan izan diren liskarren ondoren, nolako egoera somatu duzu?**

Bai lehen ministroarekin bai eta kultur ministroarekin egin ge-muen bilaketan azaldu zigutena-ren arabera, Marokorekin zuten harremana ere eta gehiago des-berdindu eko distantziatu da. Sa-harrek argi dute ez dutela maro-koar izan nahi, eta Asimen izan-dako liskarek hori gehiago



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, errefuxituen kanpalekuetan, Tolosa analituta dagoen herriko alkatearekin. »

azpimarratu dute. Era berean, itxaropentsu daude une honetan Marokoko gobernu eta Frente Polisario Estatu Batuetan izan ari diren bilaketekin. **Espero al zenuenarekin egin al duzu topo han?**

Gogorra da berriek bizi dutena. 35 urte daramatzate basamortuan. Gogorra da, batez ere, be-lanaldi berrientzat. Izan ere, jende guztiak ez du euren harra eza-gutu ere egiten. Badute telebista, eta udan handik ateratzeko auko-ta dute, Euskal herria, estra-ko. Beraz, adli beran beste errea-litateak ere ezagutzen dituzte. Basamortuan bizi duten erreali-tateari eustea da berriek duten benetako erronka, jakinda, han-dik kanpora badagoela beste mundu bat. Hartzaz, beraien ego-nerokoa borroka bat da. Bizi di-

ten egoerari eustea, egun batean egoera aldatuko denaren itxaro-penarekin. Hori oso gogorra da. Hori gurtia kontuan hartuta, jende oso lasaia, alai eta ereduag-riarekin egin man topo. **Errealitateak bertatik bertara eza-gutzea garantzitsua izan dena.**

Bai, oso garantzitsua da horrela-koak orberre begietatik eta bizi-tzea. Horregatik, ulahetxeko zinegotzi guztiak bertako erreali-tatea ezagutzea gustatuko litzaiz-da, eta salatuako gara hori pos-i-ble-egiten. Horrela gurtien artean atertuko ditugu era egokiagoan dituzten beharrak, eta behar ho-riei egoki erantzun ahalio diegu. Garantzitsua da sahararrei ba-besa ematen jarraitzea, batez ere, hainbat elementutaz gurekin hainbeste antza dutela kontuan hartuta.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berriro eta indurto dirugu udakenean. **Apustu hau aurrera ateratzea du, zuekin batera, gure erronka.**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrikan.info

badak

berrikan

plaza

iragarkilaburrak.com

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpen egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruekin

- Transfrentziara Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: **zuzaraberria.info** webgunean

berria
taldea

Menditik jaisteko unea iritsi zaio

Bihar eskualdeko herri guztietan ez da kantu eta musikarik faltako; etxeko txikienak izango dira protagonista

Eneritz Maiz Gizartea

Olentzero joan zaigu, mendira lanera... edota hator hator mutil etxera... biharko egunean nork ez ote ditu abestuko abesti hauek. Urteko egunik misterioetsuenaren atarian gaude. Gau magikoa izan ohi da abenduaren 24a. Goizean goizetik, haur, gazte eta heldu, gona zaharrak, blusak, artilezko galtzerdiak, abarkak, buruko zapiak eta txapelak jantzita aterako dira kalera.

Tolosaldean eta Leitzaldean ere, goizean goizetik igarriko da Olentzeroa edota Orantzaroa menditik jaitsi eta opariak jasotzeko eguna iritsi dela. Artzain-andrez jantzi eta eztarriak berotzeko unea izango da. Batzuek, ardoz betetako zatoa izango dute lagun.

Gehienak, eskean ibiliko dira baserriz baserri, kalez kale edota etxex etxe. Dirua jasoko dute eta herri edota talde bakoitzak helburu ezberdinetarako izango du bildutako dirua: eskolarako, beharreen dauden haur edo lurraldeetarako, euskal preso eta iheslarien eta hauen familientzako, organoa konpontzeko...

Baina dirua biltzeaz gain, haumaketako ederrak ere izango dituzte. Sarri askotan, ongiatorriak izan ohi dira abestera joaten diren lagun taldeak. Ateak zabaltzen dituzten baserri edota etxetan, jan eta edatekorik ez da faltatzen. Oinak urratuta izanagatik edota bidean geldituagatik ere, aurrera egiteko indarra ateratzen dute taldeek, trikiti doinuak lagun dituztela.

Azken urteetako krisi hotsak izango du eragina, baina ziur aurtengoan ere, Olentzero ongi portatuko dela. Etxeko txikientzat badira ere, opariak izango ditu zaku handian gordeta. Hori bai, urte honetan guztian zehar nola-ko portaera izan duen bakoitzak jakingo du. Eta Euskal Herriko ikazkinik ezagunenak, ikatza ere izango du banatzeko.

Elkartasun denda zabalik

Urteroko moduan Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak elkartasun denda zabaltuko du, Kale Nagusian (Iratzar herriko tabernaren parean).

Bihar, egun osoz (eguerdiko tarteaz ezik) irekita egongo da. Mota guztietako opariak egiteko aukera izango da: liburuak, jantziak... «Elkartasuna eta disperzioaren gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa lantzeko modu ezin hobea bertan erosketak egitea», dio Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.



Flemingo Arroako eta Arratzalaineko ikasleek Mari Domingiren bisita izan zuten. HITZA



Jesusen Bihotza ikastolako ikasleek Olentzeroren bisita izan zuten eta Fraisoroko egoitzara ere joan ziren abestera. HITZA

**Eguberri
hauetan
oparitu
HITZako
harpidetza!**



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

↓ Eguberri bezpera, herriz herri**ABALTZISKETA**

■ **10:00.** Guraso, ikasle eta irakasleak plazan elkartuko dira. Goiz eta arratsalde z kantuan ariko dira herrian zehar.

ADUNA

■ **08:00.** Muxkileko taldea kantari abiatuko da baserriz baserri.
 ■ **09:15.** Eskolako haurrak etxetik abiatuko dira. Itzuleran, Olentzarok eskolan utzitako opariak zabalduko dituzte.
 ■ **12:00.** Haurren hamaiketako Txulobin.

ALBITZUR

■ **09:00.** Haur eta gurasoak plazan elkartuko dira. Gazteak baserriz baserri ariko dira jubilatuei opariak banatuz.
 ■ **19:00.** Olentzero kalejiran abiatuko da Elane tabernaren ondok eta udaletxeko arkupean hartuko ditu haurrak.

ALEGIA

■ **11:00.** San Juan eskolako ikasleak abesten herriko kaleetan zehar.
 ■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean egingo diete harrera. Txintxarri kantari ibiliko da.

ALTZO

■ **10:00.** Altzo Azpin elkartuko dira. Guraso, irakasle eta ikasleak eta etxetik aterako ibiliko dira. Bukatzeko, hamaiketako Elordi elkartearen, Elkarteko zuzendaritzak prestatuta.

AMEZKETA

■ **09:00.** Eskolako haur eta gurasoak Ugarten elkartuko dira eta batera bazkalduko dute eskolan. Preso eta iheslarien alde abesten aterako direnak plazan elkartuko dira eta baserrietan ibiliko dira. Ugarten bazkalduko dute.
 ■ **15:30.** Ugarten bazkaldu ostean, herrian zehar ibiliko dira.

ANOETA

■ **08:30.** Gazte Asanbladako kideak kantuan aterako dira baserriz baserri Gaztetxetik.
 ■ **14:30.** Gazte Asanbladako kideen bazkaria Goikoetxean.
 ■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingi 18:00etan Isastitik

irtengo dira. Plazan egingo zaien ongi-etorrian Loatzo Musika Eskolak, Gazte Asanbladak eta Anoetako Dantza Taldeak hartuko dute parte. Ondoren Olentzerok eta Mari Domingik gozokiak banatuko dituzte.

ARESO

■ **10:00.** Etxetik aterako dira kantari eta herrian zehar ibiliko dira.
 ■ **18:00.** Mañenea etxeko atarira Olentzero iritsiko da eta ondoren opariak plaza zaharren banatuko ditu.

ASTEASU

■ **10:00.** Ikasle, irakasle eta gurasoak kalez kale ibiliko dira kantuan. Eguerdian Olentzero etorriko da pilotalekura.
 ■ **12:00-14:00.** Usarrabi taldea plazatik kantuan aterako da herrian barrena organoa konpontzeko dirua biltzeko.

BALIARRAIN

■ **14:30.** Plazan elkartu ondoren kantuan ariko dira.

BERASTEGI

■ **09:00.** Plazan elkartu ondoren kalejiran herrian barrena ibiliko dira. Eta Guraso Elkarteak antolatuta bazkaria egingo dute Urepel elkartearen.
 ■ **15:00.** Berriz ere plazan elkartu eta kantuan ibiliko dira.

BIDEGOIAN

■ **09:30.** Frontoian elkartuko dira eskolakoak. Goiz eta arratsalde z ariko dira eta elkarrekin bazkalduko dute.

**HERNIALDE**

■ **09:00.** Bentatik hasten dira abesten eta herri osoa zeharkatzen dute goiz eta arratsalde.
 ■ **18:30.** Olentzero frontoira iritsiko da.

IBARRA

■ **18:30.** Olentzero musikariekin eta bere laguntzaileekin batera Izaskun auzotik abiatuko da.
 ■ **19:00.** Euskal Herria kalea zeharkatuz Olentzero plazara iritsiko da. Bertan, haurrak Olentzerorekin egoteko aukera izango dute.

IKAZTEGIETA

■ **08:30.** Kiroldegiko aparkalekutik aterako dira eta kantuan ibiliko dira lehenik baserriz baserri, eta gero herri gunean. (Amnistiaren aldeko Olentzeroa).
 ■ **18:00.** Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Opariak banatuko dituzte plazan.

IRURA

■ **11:30.** Hamaiketako plazan, Ikastolakoekin abesten ateratzen diren haurrentzat

■ **18:30.** Jaiotza biziduna San Migel plazan.
 ■ **19:00.** Olentzeroren etorrera eta opari banaketa.

LARRAUL

■ **09:30.** Herritarrek plazan elkartu eta baserriz baserri eta herri gunean, kantari ibiliko dira goiz eta arratsalde.
 ■ **18:00.** Olentzeroren etorrera plazara.

LEITZA

■ **12:00.** Orantzaroa eskolatik aterako da. Herritik buelta egin ondoren, plazan bilduko dira guztiak. Laguntzaileek eskutitzak jasoko dituzte eta opariak banatuko dituzte.
 ■ **18:30.** Orantzaroa eta Maimurren agerraldia izango da bertsolariek lagunduta. Kalejira egingo dute herrian barrena txistulari eta Jaiki abesbatzarekin batera. Amaitzeko kalejira egingo dute.

ORENDAIN

■ **09:00.** Haur eta gurasoak plazan elkartuko eta baserriz baserri kantuan ibiliko dira goizean zehar.

TOLOSA

■ **17:30.** Olentzero eta Mari Domingi ibaitik etorriko dira. Haurrak Lizardi plazan bilduko dira 17:30ean. Zerkausiraino joango dira etorrera iragarri. TAK-ekoek txalupaz egingo dute ibilbidea.
 ■ **Trianguloan.** Udaberriko haurrek dantza egingo dute.
 ■ **Zerkausian.** San Bernardo eta Kazkabarrako haurrak bertsoak abestuko dituzte. Olentzero eta Mari Domingik hitz egingo dute eta jarraian, Marrazki Lehiaketako sariak banatuko dituzte. Bukatzeko haurrek beraiekin egoteko aukera izango dute.

VILLABONA

■ **Goizez.** Preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa kalez kale ibiliko da goizean hasita. Eresargi abesbatzako kideak goizez Amasako baserrietan ibiliko dira kantuan, Villabonan arratsalde z. Ikastetxetakoak ere ibiliko dira.
 ■ **17:45.** Olentzero eta Mari Domingi ongi etorria Otsabin. Dantzariak, musikariak, abesbatzako kideak, bertsolariek nahiz herritarrak hartuko dute parte Errebote plazara bitarteko kalejiran. Oria merkatariekarteak gaztainak jarriko ditu parte hartzaileen artean banatzeko.

ZIZURKIL

■ **Goizez.** San Millan ikastetxe-ko umeek baserrietan abestuko dute eta Pedro Mari Otaño nahiz Jesusen Bihotza ikastolako umeek Elbarrena auzoa alaituko dute. Ondoren, hamaiketako Urkamendi elkartearen.

**Hilberriak****ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**EMETERIO SORAZU**

*Une latz hauetan bat egiten dugu
famiaren saminarekin, eskerrikasko
emandako irakaspenengatik.*

Uzturpe Ikastola

Ibarra, 2010eko abenduaren 23

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazteagatik izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	7°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Gaztelu.** Gazteluko udalak odola emateko eguna antolatu du gaurko. 19:00tan izango da udaletxean bertan.
- **Ibarra.** Igandean, hilaren 26an, Belabietako kiroldegian izango den bertso jaialdirako txartelak salgai daude 8 euro-tan.
- **Ikaztegieta.** Eguberrietako abesten entsegua, 21:00etan, liburutegian.
- **Tolosa.** Poxpolo eta Konpainaren *Segi Jotzen* emanaldia, igandean, hilaren 26an, Leidor aretoan. Sarrerak salgai daude Leidorreko leihatilan edota *Kutxa.net*-en.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *reborn* panpinkerin osatua, Aranburu jauregian ikusgai.
- **Tolosa.** Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* erakusketa, Aranburu jauregian. Angel Cuerdok azken 10 urteetako bi-daietan jasotako argazkien bilduma. Argazkiak salgai daude, eta jasotako dirua Sahararen alde izango da.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- **Irura.** *Baloia* haurrentzako pelikularen emanaldia, 18:00etan, kulturuneko areto nagusian. 22:00etan, *Alicia en el pais de las maravillas* filma.

MUSIKA

- **Aldaba.** Donosti Ereski abesbatza eta Ereskitxo abesbatza ariko dira, Migel Zeberioaren zuzendaritzapean, Aldabako elizan, 19:30ean.
- **Tolosa.** Isidro Larraña Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua. 19:30ean, Leidorren.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarrren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Ainhua Eizmendi Buitrago (Tolosa). Gaur 18 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Garazi Urkizar Landa. Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu goxoak familiakoen partetik.



Urte askoan!

Gotzone (Aduna). Gaur urteak. Zorionak eta muxu handi bat Joxe Mari eta Jonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaiaberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxe bulegoa

Urte herri on
2011

Tolosa&Co

MUNDAKATZEN

TOLOSA & CO
MUNDAKATZEN

**Helduentzat eta
umeentzat**

Abenduak 24arte egiten diren erosketengatik
3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera

NEREA
1962

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

LENTZERIA